

87/2022 FORU AGINDUA, azaroaren 9koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua aldatzeko prozedurari. Foru dekretu horren bidez arautu zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura.

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako lanpostuen hornidura arautu zen (2014ko 88. NAO, maiatzaren 8koa).

Duela gutxi lege formalaren mailako arauak eman dira, foru dekretu horren edukiari eragiten diotenak; beraz, foru dekretu hori aldatzeko prozedura hasi da foru agindu honen bidez.

Edukiari eragiten dioten lege horietako batzuk dira estatuan onetsi diren abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, eta Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoa; biek ere garapenerako oinarritzko erregelamendu arauak dituzte, eta alderdi batzuk Nafarroan nahitaez aplikatu beharrekoak dira, eragiten baitiete mugikortasunari eta irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeari. Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuari gehien eragiten diona da irakaskuntzako funtzio publikoaren antolamenduaren aldaketa, kendu baita Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoa eta sortu baita Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa.

Nafarroan ere eman dira 37/2014 Foru Dekretuaren edukia berrikustera behartzen gaituzten legeak. Hona hemen horietako bi: uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legea, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz, eta maiatzaren 4ko 11/2022 Foru Legea, neurriak ezartzen dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira.

Hori guztia bat etorritik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin,

AGINTZEN DUT:

1. Hasiera ematea apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua aldatzeko prozedurari. Foru dekretu horren bidez arautu zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura.

2. Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzua izendatzea hura prestatu eta izapidetzeko ardura duen organo.

3. Foru agindu hau igortzea Hezkuntza Zuzendaritza Nagusira, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusira, Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzura eta Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira, behar diren ondorioak izan ditzen.

Iruñean, bi mila eta hogeita biko azaroaren bederatzian.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui